

# BASOAN BARRENA

Testua eta irudiak: ANTHONY BROWNE

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 27,5 x 25 cm. 32 or. 15 €.

IRAKURKETA PLAN NAZIONALA (Portugal)

**Basoan barrena** (euskaraz)

ISBN 978-84-7681-798-8. Kalandraka-Pamiela.

**No bosque** (galegoz)

ISBN 978-84-8464-668-6. Tras os montes.

**Dins el bosc** (katalanez)

ISBN 978-84-8464-848-2. Kalandraka.

**Nel bosco** (italieraz)

ISBN 978-88-95933-52-8. Libri per sognare.

**Pela floresta** (portugesez)

ISBN 978-972-8781-91-0. Livros para sonhar.

*Gau batean hots izugarri batek esnatu ninduen.*



*Hurrengo goizean isiltasun handia zegoen.*

*Aita ez zegoen etxean. Noiz itzuliko zen galdetu nion amari,  
baina ez zekiela ematen zuen.*

*Aita faltan botatzen nuen...*

“Basoan barrena” albumeko protagonista Txanogorritxorekin identifikatzen da inplizituki: aita ez dago etxean, amak gaixorik dagoen amonari opil bat eramatea eskatzen dio eta, ipuin klasikoko neskak bezala, bide laburraren eta bide luzearen artean aukeratu behar du bere helburura iristeko.

Kontakizun hau guztiz irudimentsua da eta umeen fantasia, beldurrak eta kezak erakusten ditu. Anthony Browne-rekin batera, irakurlea misterioz betetako baso baterako bidaia ahaztezina egingo du. Han beste ipuin batzuetako pertsonaiekin egingo du topo, baina ezer ez da dirudiena.



- **Gala:** misterio eta intrigazko ipuina.
- **Gomendatutako adina:** 6 urtetik aurrera.
- **Alderdi azpimargariak:** Txanogorritxo eta haur literaturako beste ipuin klasiko batzuekiko paralelismoa; zuri-beltzeko ilustrazioetako sinbolismoa, zenbait osagai koloretan dituztela; “Urdaburutarrak”, “Osteratxo bat parkean”, “Nola sentitzen zara?”, “Gorila bat. Zenbatzeko liburua” eta “Kezkamuxelak” liburuetako egile berarena.

## Anthony Browne

(Sheffield, Ingalaterra, 1946)

Leeds College of Art delakoan graduaturik, diseinu grafikoan espezializatu zen. Giza irudia irudikatzeke lehia perfektionista haren lehen lanetako eraginetik dator, Manchesterreko erietxe bateko medikuntza gaietako marrazkigile aritu baitzen. Haurrentzako ilustrazioetarako joera geroago aldi batean sortu zitzaion, zorion txartelak diseinatzen zituenekoa. Browneren estiloan atzeman daiteke margolari surrealistekiko, eszena onirikoekiko eta elementu bitxiakiko interesa. Bere ibilbidean jaso dituen sari aipagarrienak dira Kate Greenaway Domina, Kurt Maschler Saria eta Children's Laureate 2009 Domina. Hala ere, guztien gainetik, Hans Christian Andersen Saria dago, bere obra osoagatik 2000. urtean eman baitzioten. Itzal handieneko egile ingelesetarikoa bat da, batez ere irakurtzeko, begiratzeko eta lengoiaia plastikoarekin erlazioatzeko bide berriak zabaltzeko ahaleginagatik. Horren adibide bikainak dira “Urdaburutarrak”, “Kezkamuxelak”, “Nola sentitzen zara?”, “Osteratxo bat parkean” eta “Gorila bat. Zenbatzeko liburua”. Browneren lanak kultur eta arte-erreferentziez betetako unibertsoa sortu du, edozein adinetako irakurleak testua osatzeko eta interpretatzeko duen adimena probatzen duten ikusarrasto eta giltzarri ugari azaltzen baititu.

www. **Kalandraka**.com

comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela**.com  
etxea  
soltxate@pamiela.com